



LAGUN AGURGARRIOK:

Bizkaiko Elikagai Bankuak indarrez jarraitzen du gose eta zarrastelkeriaren aurka lan egiten 1995 urtetik hasita orain arte.

2008. urtean izandako ekonomia krisialdiak ekarritako pobrezia erakada, hainbat pertsonaren beharrak eta premiak areagotu zituen eta Elikagai Bankuetan jasotako elikagai eskaerak erakada handia izan zuten.

Oraingoan pandemiaren eraginez, Bizkaiko hainbat etxetan oso larritu da egoera, eta gizartearen elkartasuna eta lagunkidetasuna eskatzen ari dira aurrera ateratzeko. Esate baterako, gure elkartean eskaerak %30ean igo dira.

Laster etorriko den azaroko Bilketa Nagusia dagoen osasun egoeratik ezin izango gara supermerkatuetan egon kontuan izanda, beharrezkoa ikusten dugu zuen parte-hartzea beste era batera eskatzea; hau da, emari edo ekarpen ekonomikoa dirutan egitea gero elikagaiak erosteko eta lortzeko.

Benetan esan behar dugu Bizkaiko herritarren parte-hartzea beti bikaina izan dela, eta beraien elkartasuna aipatzekoa dela, horregatik ziur gaude orainoan ere erantzuna ezin hobea izango dela.

BILKETA NAGUSIA 2020ko azaroa.

- 1- Informazio kanpaina azaroaren 16tik, 22ra garatuko da. Epe horretan emariak online egin daitezke Bizkaiko Elikagaien Bankura, www.bancali-biz.org/donacion-economica/ web orrialdearen bidez.
- 2- Bilketa kanpaina supermerkatuetan azaroaren 20an, ostiralean, eta azaroaren 21ean, larunbatean, izango da. Aurtengo bilketaren izena hauxe izango da: **KUTXAN EMAN EZAZU ZURE LAGUNTZA**. Lagun bakoitzak berak nahi duen dirua eman dezake Bizkaiko Elikagaien Bankurako.
- 3- Bihotzez eskertuko genuke kutsatzeko arrisku gutxien duten pertsonak boluntario aurkeztea, hau da, 65 urte baino gutxiagokoak, gaixotasuna izan dutenak edo antigorputzak garatu dituztenak.

Prozedura honen bidez erraztuko dugu boluntarioen parte hartzea:

- Emaila bidaliz colectas@bancali.biz.org helbidera, eta bertan izena, harremanetarako telefonoa eta norbera bizi den udalerrria jarri.
- Telefonoz deitu zenbakia hauetara, 946053779 edo 944499258, astegunetan 9:30etik 12:30era.

- 4- Kanpaina honetako bilketan jasotzen den diru guztia BAB-k elikagaiak erosteko izango da.



Pandemiaren eraginagatik gizarte larrialdi latz honetan, hurrengo eskatzen dizuegu:

- **Informazio hau sare sozialetan eta zure harremanen artean zabaltzea.**
- **Elikagaien bilketa kanpaina herritar guztiak parte-hartzera animatzea bakoitzak ahal duena eman dezan.**
- **Osasun aldetik eragozpenik ez duen edozein pertsona animatzea boluntario moduan lan egitera.**

Azkenik, BAB-k kanpaina honetan zuen inplikazioa eskertzen du. Zuen laguntza ezinbestekoa izango da gure gizartea hobetzeko eta egoera larri honetan dauden bizilagunei eta familiei laguntzeko. Urrats txiki bat bada ere, oso garrantzitsua izango da.

Oraingoan, inoiz baino gehiago mila esker eta agur bero bat denoi.